

## **Ez da bidea**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-12-17: 3.

Itsasondoko baserri inguruan euskaldun gazte batek hotzean bi hertzain hil dituela jakin dudanean, Israelen jasan berria duten Isaak Rabinen hilketa etorri zait burura. Ez osorik pareko direlakoan, euskaldunak ez zeukan alde zurririk pentsatua, eta juduak ongi trazatu eta gero bota zuen bere herriko Lehendakari zena. Halere, besteak beste, sentitu dugun mina gonbaragarri izan daitekela nago, eta gure arteko basakerietara ezin naiz errenditu protesta gabe. uniformeari tiro egin diola esatea ere ez zait xuribide egokia iruditzen, zeren eta hala argudiatzen duena bere ustean portaera bat ari da juzkatzen, eta ez objetiboki instituzioaren legetasuna ez zilegitasuna ere; subjektibotasunean, bada kanpo, badakigu: eusko poliziaren buru denaren eta hertzaintza beraren jokabideenganako kritika gogorak entzuten dira herrian. Kritika libre da, eta beharrezko, baina ez hilketa. Euskal presoak pertsona politikoak direla, eta ez pieza sakabanagarriak, fermuki sinesten dudanean neurri berean dira nere ustez salagarriak hilketak orain bertan Madrileko seikoa bezala, dohako eta justifika eziñak direlako kontzientzia esnatzen zaidanean.